



# Osasuna Politika Guztietan

**BATZORDE TEKNIKOA**



Txosten  
sektoriala **2019**

**Lehendakaritza**

2021eko martxoa



*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

## LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA NAGUSIAREN KOORDINAZIO ZUZENDARITZAREN MEMORIA, OSASUNA POLITIKA PUBLIKO GUZTIETAN PROGRAMAREKIN LOTUTA 2019AN EGINDAKO JARDUEREI BURUZKOA.

Koordinazio Zuzendaritza Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusiaren barruan dago, eta Politika Guztietako Osasun Batzorde Teknikoan (**PGOBT**) ere badago, 2013-2020 aldirako Euskadiko Osasun Planaren gobernantza-aurreikuspenak aintzat hartuta eta Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren 9. artikulua esleitzen dizkion eskumenen babes funtzionalarekin.

PGOBTaren eta 2013-2020 Osasun Planaren Batzorde Gidariaren erantzukizunen esparruari dagokionez, adierazi behar da aurrez aipatutako organoek (**Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia eta Koordinazioko Zuzendaritza**) Gobernu Programarekin eta Plangintza Estrategikoarekin lotutako eskumenak dituztela esleituta.

2018an gauzatutako jarduerari buruz egindako memorian, zenbait gogoeta jaso ondoren, **Koordinazio Zuzendaritzak** hainbat jarduketa-konpromiso hartu zituen 2019ko ekitaldirako, eta, gure ustez, honako hauek gogoratu behar dira:

- **1. konpromisoa:** XI. legegintzaldiko Gobernu Programan sail bakoitzerako aurreikusitako konpromisoen eta ekimenen eta **Osasun Planaren** helburu eta ekintzen arteko behin betiko kontrastea amaitzea, eta ondorioen proposamen bat egitea, inplikaturako organo guztien ardura duten agintariei helarazteko. Lehen konpromiso horri dagokionez:
  - **Koordinazio Zuzendaritzak** dokumentu-proposamen bat egin du, eta, bertan ondoriozta daitekeenez, agerikoa da bi tresnen arteko

---

koherentzia, **Osasun Planaren** eta **Gobernu Programaren** artekoa. **Osasun Planaren** helburuen eta ekintzen eta **Gobernu Programaren** konpromisoen eta ekimenen arteko erlazioa identifikatzen da.

- Lehenengoaren helburu eta ekintza guzti-guztiek zuzenean edo zeharka bigarrenaren konpromiso eta ekimenetan isla dutela egiaztatzen da, eta Jaurlearitzaren hamabi sailetatik hamaikaren ekintza politikoari eragiten diotela, bai eta administrazio instituzionaleko organoei ere.
  - Proposamena **Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzara** bidali da, azter dezan, eta, ondoren, inplikaturako Jaurlearitzako sailei helaraz dakien, horri buruzko balorazioa egiteko, hala badagokio, egoki irizitako aldaketak susta ditzaten, bai baztertzeagatik bai gehitzeagatik.
- **2. konpromisoa:** Gobernu Programa betetzen duten sailen jarduketan jarraipenean eskumena duten zerbitzuekin lankidetzan aritzea, aurreko atalean aipaturako ekimenekin eta konpromisoekin lotuta daudenean. Bigarren konpromiso horri dagokionez:
- **Osasun Planari** dagokionez, lankidetzaren mekanismo egituratu bat ezarri da, gobernuaren ekintza orokorraren jarraipena egiteko.
  - Sistemak aurreikusten du sailak arduratzea jardura jakin bat argitaratzeaz **Gobernu Programaren** jarraipen-aplikazioan (**Aplikazioa**). Argitaratze horren emaitzak edonork eskura ditzake Irekia Atariaren bidez.
  - Hartutako lehenengo konpromisoan aipatzen zen dokumentu-proposamenari buruzko kontsulta-prozesua amaitu eta aipaturako kontrastea itxi ondoren, **Aplikazioan** jasotako informazioaren bidez identifikatu ahal izango dira **Gobernu Programaren** konpromisoak eta ekimenak betez **Osasun Planaren** helburuak lortzen lagundu duten sailen jarduerak.

Bi aldi amaitu dira: XI. Legegintzaldia eta 2013-2020 aldirako Euskadiko Osasun Plana amaitzeko aldia. Epe laburrera, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programa eta **Osasun Planaren** azken ebaluazio-lanak izango ditugu, eta hori ordeztuko duen plangintza-tresna prestatu eta onartuko da. 2018ko ekitaldiko jarduerari buruzko memorian honako hau esan genuen:

---

*“Gobernu programazioaren eta plangintzaren arteko harreman handiak, gogoeta eta balorazio-prozesuen ildo informatzaileetan beharrezkoa den bateratzeak eta lortu beharreko helburuen eta ebaluatzeko mekanismoen zehaztapenak etengabeko kontrastea eskatzen dute bi jardueren printzipio, definizio, ekintza eta kanalizazio politikorako gainerako tresnen artean”.*

Aukera berri baten aurrean gaude, epe labur eta ertainean aurre egin beharreko definizio eta diseinu programatiko eta planifikatzaileei dagokienez. **Gobernu Programaren** eta **Osasun Planaren** edukietan egiaztatu den koherentzia mantendu egin beharko da jarraipena ematen dieten tresnetan.

## 2020RAKO KONPROMISOAK

**Koordinazio Zuzendaritzaren** konpromisoei dagokienez, 2020ko ekitaldirako honako konpromiso hauek hartzea proposatzen da:

- I. Behin dagokion kontrastea eginda, eta eragindako sailek egindako gogoetak eta ekarpenak ikusita, **Osasun Planaren** helburuen eta ekintzen eta **Gobernu Programaren** konpromisoen eta ekimenen arteko lotura adostasunez jasoko duen dokumentu bat egiten amaitzea. Nolanahi ere, eta Osasun Planaren gobernantzaz arduratzen diren organoekin koordinatuta, egindako lanaren izaera bereko lan bati ekitea, baina egoki denean, XII. Legegintzaldiko Gobernu Programari dagokionez.
- II. Unean-unean indarrean dagoen gobernu-programa betetzen duten sailen jardueren jarraipenean zerbitzu eskudunei lankidetzat ematen jarraitzea, aurreko paragrafoan aipatzen diren konpromiso eta ekimenekin lotuta.